

Euskal arrantzaleak eta Gaskoin arrantzaleak

(Basque fishermen and Gascoigne fishermen)

Pagola, Manex

Larrea

F64990 Urcuit/ Urketa

BIBLID [1137-439X(2002), 21; 113-116]

Arrantza ekonomia aktibitate lan bat bezanbat hortarik bizi diren jendeen bizitze ko era bat ere dugu bere baitako eta ingunuko giza harremanekin. Harreman hauek, bixakoa, era askotakoak ere direla eta lane ko teknika bezala beti aldakor. Euskal eta Gaskoin arrantzaleen arte ko bereizketa maiz oraino hizkuntzarat eta lurralde tasunerat bezala hor batzuek eta beste k iragan denboretan zituzten arrantza te knike tarat mugatzen da. Baina hain egia ote da gaurko egunean –eta te knika berrie n arauan bere ziki- bereizketa horrek beti berdin diraukela? Elkarren auzo diren euskal eta gaskoin arrantzalek hanbat eragozpen dituzte lanik gairidutze ko, ez ote dute elkar e zagutza eta trukaketa berririk asmatzen ari hizkuntza berri bate an beza- la? Beren ohizko aktibitate a luzarat zinez zaindu nahi balinbadute, handik eta hemendik itoak eta bazter- tuak izan gabe...

Giltza-Hitzak: Ohidura. Te knikak. Pidjin. Kultura.

La pesca, tanto como una actividad económica para la gente que vive de ella, resulta ser también una forma de vida con relaciones humanas dentro del grupo y en torno al mismo. Evidentemente, éstas son relaciones de muchos tipos y, tal y como las técnicas del trabajo, cambiantes. La distinción entre los pescadores vascos y gascones, todavía con frecuencia referida a lengua y territorialidad, comprende también las técnicas de pesca que unos y otros empleaban en el pasado. Pero ¿hoy en día –sobre todo en época de nuevas técnicas– sigue existiendo esa distinción? Siendo vecinos como son, los pescadores vascos y gascones que tantos obstáculos han de superar ¿no están inventando un nuevo conocimiento e intercambio mutuo como en una nueva lengua? Si de verdad quieren defender su actividad cara al futuro, sin resultar asfixiados y marginados por las circunstancias...

Palabras Clave: Costumbre. Te knicas. Pidgin. Kultura.

La pêche, activité économique pour les gens qui en vivent, est également une forme de vie avec des relations humaines dans le groupe et autour du groupe. Evidemment, ce sont des relations de nombreux types différents et, ainsi que les techniques du travail, changeantes. La différence, entre les pêcheurs Basques et Gascons, se réfère souvent à la langue et à la territorialité, et concerne également les techniques de pêche que les uns et les autres utilisaient dans le passé. Mais aujourd'hui –surtout à l'époque des nouvelles techniques– existe-t-il encore cette différence? Bien que voisins, les pêcheurs basques et gascons, qui doivent surmonter tant d'obstacles, ne devraient-ils pas inventer une nouvelle connaissance et un nouvel échange mutuel, comme s'il s'agissait d'une nouvelle langue, s'ils désirent vraiment défendre leur activité face à l'avenir, sans être asphyxiés et marginalisés par les circonstances...

Mots Clés: Coutume. Techniques. Pidgin. Culture.

Horrela pausatua da gaia, erdararat itzuliz «*Pêcheurs basques et pêcheurs gascons*» bailiteke.

Gure itsaso aldeari buruzko gai honetan asko zor diogu Baionako Jean Louis Boss jaunak daraman hemen gaindiko itsas etnografia ikerketa zehatzari. Itsas etnografo baiones honek begirada berean hartu nahi izan du Lapurdi eta Gaskoinia zolako itsasgintzaren izaera eta garapena, batez ere batel ontzien denborakoa: Beraz itsasoan motorrak sartu aurreko edo aintzineko denboretakoa, demagun lehen mundu gerla handiaren aintzinetik edo aurretik. Bainan euskal arrantza eta gaskoin arrantza alderatuz- bereziki J. Louis Boss-en kasuan bezala, Capbreton etik Ondarrurarte -dira hobekienik ikusten euskal eta gaskoin arrantzaren elgarrekilako hurbiltasunak eta aldi berean bereztasunak. Hain xuxen, Jean Louis Boss-ek euskararik ez jakinki, hanbat aldiz ibili naiz honekin itzultzaile edo «interprete» gisa Hendaian, Hondarribin, Orion, Zumaian, Deban, Ondarrun edo Lekeitioko bazter zoragarrietan... Elkarrekin nolazpait egin dugun lana gehienbat «arrantza zahararen» ikerketa bat izan da, orai arras galdua dena, azken hamarkadetako modernizazioen ondorioz, bai euskal eremuetan bai gaskoin aldetan ere.

Horra beraz hor, beharbada, euskal eta gaskoin arrantzaleen arteko lehen hurbiltasuna, tekniken aurrerapen edo aintzinamenduek ekarria.

Metodo konparatiboa erabiliz eta baitezpada kondutan hartuz dela euskal jendearen dela gaskoin jendearen kultura materiala eta kultura intelektuala, hor sartzen dira beraz elkar nahasiak askotan arrantzaren elementu fisikoen eta historikoen bilakaera, bai eta gogo moldeena, mentalitatena, beren usteri, mito zahar eta berri, ikuspegi, erlisione suhar edo motel edo berdin trakets... eta abar... bai eta itsas biziaren eta horgo laneko moldeen izana eta itxura hanbat aldatu duten teknika eta bizimoldeak..

Antropologia sozio kulturalako bidek ongi erakusten digute zoin garrantzikoak diren beti kultura eta era sozialen bilakaretan toki jakin bateko geologia, geografia, arn, ekologia sistemak eta abar... bainan ere laneko tekniken aintzinamenduak edo garapena, berdin ere gauzen produkzio, salbide, zabalkunde (distribuzio molde) eta abar...

Gehienetan herrialde bat beste batetik kulturalki bereizteko denen aintzin edo aurrean ematen ohi da hizkuntza edo historia zati edo alde zerbait... Eta zuzen da osoki alde batera. Bainan dena egia ote da -gaurko egunean bizi garenontzat eta zinez gaurko munduari hurbildik begira- hizkuntza bat baizik ezin dela gehiago erabili gerorako? Ez ote da berdin bi edo hiru, lau hizkuntzen jabe izaten ahal? Eta arrantzaleak ere zergatik ez? Ez ote dira jada hauetarik zenbait hortan? Gainerat, jada lehendanik arrantzale batzuek bederen bi hiru hizkuntza «kis kun kaskun» zerabiltzatela «kontaktu-hurbileko» guneetan.

Historiaz ari garenean ere, hain gauza segurra ote da delako iragan denbora horiek, delako «egiazko historia» zinez berexa dela? Ala ez dira herrialde

edo jendalde baten historia edo iragana nehoiz elkari hurbiltzen, elkarren eiterat jartzen, berdin elkarrekin nahasten edo kurutzatzen jende xehearen mailan bereziki, nolazpait estaduen muga berexle eta bizi aldatzaleen gainetik ere.

Horra zergatik gaurko euskal arantzaleak aipatzen ditugularik, demagun Lapurdi itsas bazterrekoak, zinez hain berexak ote dira azkenean beren lehen auzo lehenetaz, adibidez Gaskoin arantzaletaz? Euskara dutela halere tarteko? Bainan zer neuritaraino da hau ere azkenean? Zenbatek ez dute erabiliago alde batean frantsesa eta bestean espainola. Egiaz! Euskara eta Gaskoinera hizkuntzak, biak orai arras gibelerat joanak diren bezala, ez ote diren azkenean delako Lapurdiko arantzale *Euskotar*, *Basko* edo *Basques* horiek eta *Gaskoinak* geroz eta gehiago kasik beste hirugaren hizkuntza batekin ari: euskarazko bi hitz hemendik, hiru gaskoinezko handik, beste asko frantsesez eta españolez, aho-soinu berri batean bezala aski kurioski nahastikatuak!

Beste era batean, denborak jin denborak joan, euskal arantzaleak eta gaskoin arantzaleak ez ote dira elkarretarik geroz eta hurbilago jartzen ari beren lanean erabiltzen dituzten tekniken aldetik adibidez. Eta teknikek ez ote dute batere beren gisako hizkuntza unibertsalik batere? Teknika beriek dakartzaten uniformizazioaren ondorio hain segur. Kurioski gure lekuetan, demagun, beriz ere, Lapurdi itsas aldean edo Gaskoinia bazterrean, lan teknikak eta joerak berdin hain bereziak zirelarik zen ere alde bateko edo beste hizkuntza berezia azkarrenik edo erabilienik! Orai edo gero «hizkuntza gutituen» eta hertsatuen gainetik, *Pidjin* gisara, hedatzen ahal baita berdin...

Gaskoin arantzak ere izan ditu gureak bezala bere gora beherak eta barretikako aldakuntza sakonak, edo zoin motatakoak. Iragan erdi urrunean euskal arantza eta gaskoin arantza arras berexak ziren dudarik gabe eta hori asko gisetarat: itsas eremuaren aldetik lehenik: itsas zilo (fosse) hemen, aldiz harroka gune han eta beraz barku moldea bera, batean zola birun-borobila, bestean «zola xabala» laua, batean liña edo amu arantza, bestean sare lan, ttipi handi. Euskal portuek hiri bat atzetik edo gibeletik, beraz arrain salmenta hurbila, gaskoin portuek aldiz gauza guti, euskal arantzan otoitz edo fede keinu, aldiz gaskoimen artean mito eta ipuin joera gehiago, batean Karlitatez geroz euskaltasun sukarra eta aberigintza lanetarat, bestean Errepublikako frantses batean ihalozkatzea, batean Kofradien sustengu eta bizi sakon eta ordenatua, bestean «mutualitate-kesen» interesa, batean erlisio katolikoan gantzutzea, bestean aldiz erlisiotik urruntzea laiko bidetarat eta abar... Bai badirela edo bazirela beraz, hobeki erran oraingoz, euskal eta gaskoin arantzaleen arteko ezberdintasun handiak lehen eta orain ere hor izatera horien guzuen eragina.

Bainan eskualde horietako gaurko biziari ariz, eta itsas biziak, arantza barme, jasaten dituen aldakuntzen arabera bai eta espazioen laburtzea ere dela eta, mundik ez du azkenean euskal arantzak aspalditik duen indarrak, beso bat edo esku bat luzatuko gaskoin arantzari, auzo gisa, bai eta sozial kategoria berdintsua den aldetik. Berdin berdina izan ditekularik euskal

arrantzari buruz gaskoin arrantzale munduaren partetik. Horrek ekarriko baitu bi alde geografikoen itsas aktibitate berdintsuaren elkartzea arrantza bizia-
ren hainbesteko indar nahien zaintzeko bazterretik etori beste aktibitate-
rik: turismo, itsaskirola, eta abar... Ekonomi elkartze guziekin bezala, kultura
hutsak bezanbat garrantzi duke mundu hortan harat honat dabilan diru-edo
ekonomi ahalak eta arrantzaren aldeko garapen kontrolatuak.

Ez liteke bada hemendik mende bat edo lehenago entzun behar: «euskal
arrantza eta gaskoin arrantza, bakotxa bere ustezko berezitasun oina-
rrikoen gatik (nazionalak, estatalak eta abar...) enduritu, gutitu eta azkene-
an kasik ezertaratu ziren, zeren ez baitzuten ikusi elkarretarik zoin hurbilak
ziren hizkuntzaz aparte».

Holakorik entzunen denean hain segur euskal arrantzalek jakinen dituzte
hizkuntza asko (gaskoina bame berdine) eta beste gisarat gaskoin arrantzale-
ek berdine (euskara bame). Horrek ez baitu erran nahi bakotxak bere berezko
izate sakona (itsasokoa bakarrik?) ez duela zaindu nahiko. Eta lan haudietan
kurutzamen eta elkartasuna hobe, espazio geografiko, ekonomiko eta ere
nolazpait (nolaz ez?) kultural, berdintsuek eskatzen ahal duten bezala.